



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abenduaren 29a

88 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua. Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostikoarekin, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (9. or.).

—Ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (10. or.).

—Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—“Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Interes artistikoa duten eraikinak bereoneratzeko obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Aralarko larreak hobetzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Kutsaturiko lurzoruen inbentarioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Aralarko Mendikateko larreak hobetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—“Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Proiektaturiko urtegiak burutzearen gainean Ingurugiro Ministroak adierazitakoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Gaur egun trenbide-zerbitzuetarako erabiltzen den lurzorua jaregiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Hezkuntza eta Kultura Batzordearen bi ordezkariak, Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian, izendatzea (20. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Behin-behineko izendapena (20. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Toki Administrazioako Batzordeak toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 25eko 81 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da emendakinik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, 61. artikuluan, xedatzen du, Nafarroako Gobernuak, horretarako gaitzen duen Foru Legearen barruan, inbertsio planak ezarriko dituela udal entitateekin lankidetzara ekonomikorako tresna gisa. Haien helburu nagusia Foru Komunitate osoko nahitaezko udal zerbitzuen estaldura bermatzea izanen da.

Hori betetzeko asmoz, arau batzuk onetsi dira. Horien artean, 1997/1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legea onetsi berri da. Hori garatzen eta betearazten ari da gaur egun.

Tresna horiek posible egin dute kontsignaturiko kapital transferentziak objektiboki banatzea, baina aurrekontuetan eskuragarri zeuden dirukopuruak eskatzen ziren inbertsio guztiak burutzea ez dute lortu. Planak burutzean nabarmena izan da, kokaguneagatik edo jende gutxi edo sakabanaturik edukitzeagatik, eskualde batzuen

zailtasunak areagotu egin direla, haien inbertsioak Hirurteko Planetan ezin baitira sartu izan, beste herri batzuetan lehentasunezko obrak zeudelako edo finantza egoera larrian zeudelako. Inbertsioetarako diru-kopuruak zentzuz gehitzeak ez luke derrigorrez egoera konponduko.

Interesgarria da adieraztea bere garrantziagatik 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean aurreikusiriko Goi Presioko Ur Hornidurarako Plan Zuzentzailea. Haren finantzaketa arruntak, kapital transferentzien bidez, inbertsio guztiaren kostuaren ehuneko 90 egiten du. Partaidetza portzentaia oso handia bada ere, gure herrialdeko puntu batzuetan defizita dago azpiegitura mota horretan, besteak beste, ukituriko toki entitate batzuk ez zaizkiolako atxikitzen, dagokien finantzaketa beren gain hartzerik ez dutelako, ez eta arau horretan aurreikusten den aparteko finantzaketa sistemak behartzen dituen neurriak ezartzerik ere ez.

Bestaldetik, toki programazioko inbertsioei dagokienez, toki entitate guztiak aurkezten dituzten eskabideak hautatu eta haien artean lehentasunak ezartzeko formulak posible egiten du egiaztatzea epe laburrean beharrezkoa den obrarik ba ote dagoen, horixe baita lehentasunik handiena entitate bakoitzeko azpiegituren banan-banako defizitaren kontzeptuaren arabera. Horiek, hala ere, ez dira kasuan kasuko inbertsio planean sartzen, aplikaturiko gainerako aldagaiek, hala nola, bizilagun bakoitzeko inbertsioaren errentagarritasunak, hautatua izateko eta lehentasuna ezartzeko koefizientea dexente gutxitzen baitute.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 34. artikulua xedatzen du Foru Komunitateko ekintza publikoko sektore bakoitza arautzen duten legeek udal batzuetarako araubide bereziak ezartzen ahalko dituztela, beren kokagune, jarduera nagusi, onda-

re historiko edo beste edozein ezaugarriengatik komeni bada antolamenduan edo finantzaketa sisteman tratamendu bereiztua ematea.

Izaniko esperientzia kontuan harturik, oinarrizko azpiegitura horiek finantzatzeko eta hautatu eta lehentasunak ezartzeko irizpideek egokitu egin behar dute, berdinak direnak elkarrekin lehia-tzea posible egiten duen sistema bat ezaririk.

Nafarroako lurraldearen antolamenduari eta hiri sistemari buruzko azterketetatik ateratzen ahal da badaudela udalerrri batzuk gizarte eta ekonomi garapen txikiagoa dutenak. Galera demografiko larria, jendetzaren zahartzea, atzeratuago dagoen ekoizpen azpiegitura, garapen ekonomikoaren eta dotazioen maila apala dira haien ezaugarriak, beste aldagai adierazgarri batzuen artean.

Kontzeptu horiek parametrotzat harturik, azpiegiturarako finantza-tratamenduari dagokionez, Nafarroako eskualderik behartsuenen sailean sar litezkeen toki entitateen zerrenda bat egiten da. Haiexei egiten die kasu Foru Lege honek.

Oinarrizko azpiegituren dotazioa sustatzeko nahiak ez du ahanzarazi behar baliabideak ahalik eta gehien erabili behar direla. Hori horrela, lortu nahi diren eraginkortasun eta ekonomia erdieste-ko, jarduketa batzuk toki entitateen borondatezko elkarteak osatuz burutu behar dira.

Kasu horietan tratamendu bereiztua ezartzeko arauzko tresna Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko Foru Legeak izan beharko zukeen. Hala ere, horrelakorik ezean, Foru Komunitateko eskualde behartsuen zailtasunei, gero eta handia-goak direnei, erantzuna emateko, beharrezkoa da 1999 arte araubide berezia ezartzea, indarra duen Hirurteko Planean ezarrikoko osatuz, eskualde horietako oinarrizko azpiegituren urritasuna arintzeko, fondo bat eta finantzaketa sistema bereiztu bat osatuz, herri horietako bizilagunek ere gainerako nafarrek eskura dituzten oinarrizko zerbitzuak izateko aukera izan dezaten.

Horrek denak aipaturiko toki entitateetan jardutera behartzen du beharrezkoenak diren inbertsioetan, goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzaileei, ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareei eta zoladurei dagokienez, 1997-1999rako Inbertsioen Hirurteko Planerako aurkezturiko eskabideetatik abiatuz eta arau horrek hartzen dituen entitateetarako dagoeneko atera diren hautatze eta lehentasun koefizienteen arabera aplikatuz fondoak. Dirurik sobrako balitz, hori herri arteko bideetan inbertitzeko erabil liteke.

Finantzaketari dagokionez, goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzaileei ehuneko 10 ekarriko

zaie, 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko Foru Legean aurreikusiriko diru-ekarpina osatzeko. Toki programazioko gainerako obretarako, arau horretako irizpideen aplikazioaren arabera egoki den finantzaketari eutsiko zaio.

Azkenik, arau hau toki azpiegituren sistemaren osagarria dela ulertuta, egoki da, Foru Lege honek aurreikusten dituen jarduketetarako espreski aipatzen ez diren gorabeheretan, apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean aurreikusiriko prozedurara igortzea.

1. artikulua. Foru Lege honen xedea 1997-1999rako toki azpiegituren alorrean plan berezi bat ezartzea da, 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean aurreikusia osatuz. Plan horrek Eranskinean aipatzen diren toki entitateak ukituko ditu, Foru Lege honen ondorioetarako eskualde behartsutzat jotzen baitira.

2. artikulua. Finantzaketaren xede diren inbertsioak Goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzailea eta ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareei eta zoladurei dagozkien toki programazioko obrak izanen dira, 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluetan zehaztu bezala. Inbertsio mota horretarako aurreikusiriko dotazio ekonomikoak eskatzen direnak baino gehiago izan balitez, soberako diru-kopuruak herri arteko bideetarako eskakizunetan erabil litezke. 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legeko 3. artikuluko 9. atalean aipatzen direnak dira inbertsio horiek.

3. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren kapital transferentzien kargurako Plan berezi honetarako diru-ekarpenak hainbat urtetarako izanen dira. Hona hemen:

DIRU-EKARPENAK	1997	1998	1999	Guztira
	600.000	350.000	350.000	1.300.000

(milaka pezetatan)

4. artikulua. Goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzailea 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta haren erregelamenduzko garapenean aurreikusirikoarekin bat burutuko eta garatuko da.

5. artikulua. Toki programazioko obrak toki entitate bakoitzak aurkeztekoak dituen eta Foru Lege honetan aipatzen diren eskabideetan lorturiko hautatze eta lehentasun koefizientearen arabera hautatuko dira eta emanen zaie lehentasuna

1997-1999rako Hirurteko Plana prestatzeko prozesuan, banan-banako azpiegitura urritasuna dela-eta epe laburrera beharrezkotzat jotzen diren mota zehaztuko obrak aintzakotzat joz.

6. artikulua. Goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzailerako diru-ekarpenen araubidea ehuneko 10ekoa izanen da, 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko Foru Legean inbertsio horietarako aurreikusiriko diru-ekarpena osatuz.

7. artikulua. Toki programazioko obretarako diru-ekarpenen araubidea 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko 8. artikuluan eta horrekin bat datozenetan aurreikusia izanen da.

8. artikulua. Foru Lege honetan biltzen den Plan berezia osatu, garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta hori garatzeko ekainaren 10ean eman zen 241/1996 Foru Dekretuan ezarritikoa izanen da eta arau honetan aurreikusiriko berezitasunekin bat etorraziko da.

9. artikulua. Kasuan kasuko ekitaldian erabiltzen ez diren baliabideak hurrengo ekitaldiko Plan berezia handitzeko erabiliko dira. Gerakin kontuen aurrezkiek lehengo ekitaldietako obren kostu handiagoak finantzatuko dituzte eta Foru Lege honek aipatzen dituen ekitaldiei dagozkien Toki Administrazioako Departamentuko kontusail erabiligabeetako kredituak gaineratzen ahalko dira.

Xedapen gehigarria

Foru Lege honetan aipatzen den Goi presioko ur hornidurarako plan zuzentzaileko inbertsioak, toki entitate batzuekin batera burutzekoak badira, borondatezko elkarte osatzen bada burutuko dira bakarrik. Elkarte bakoitzak arau honen Eranskinean agertzen diren toki entitateez osaturik beharko du egon. Beste entitate batzuk ere izaten ahalko dira bertako kide, baldin eta bizilagunik gehienak haietakoak badira.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

TOKI ENTITATEAK

- 2 ABARTZUA
- 3 ABAURREGAINA

- 4 ABAURREPEA
- 8 AGUILAR DE CODES
- 11 ALLIN
- AMILLAO
- ARAMENDIA
- ARBEITZA
- ARTABIA
- ETXABARRI
- EULTZ
- GALDEANO
- LARRION
- MUNETA
- ZUBIELKI
- 13 AMESKOABARREN
- ARTATZA
- BAKEDANO
- BARINDANO
- EKALA
- GOLLANO
- SAN MARTIN (AMESKOA)
- ZUDAIRI
- 19 AGOITZ
- 21 ARANARATXE
- 24 ARANO
- 26 ARAS
- 28 ARTZI
- ARRIETA
- ARTOZKI
- AZPARREN
- LAKABE
- NAGORE
- ZARAGUETA
- URITZ
- ARTZIBAR-HIRIBERRI
- 31 ARESO
- 33 ARIA
- 34 ARIBE
- 43 AZUELO
- 52 BELASKOAIN
- 55 BETELU
- 58 AURITZ
- 59 BURGI
- 63 CABREDO
- 71 GAZTELUBERRI
- 81 DONAMARIA
- 82 ETXALAR

87	ELGORRIAGA	IRURRE
90	ERATSUN	ITURGOIEN
91	ERGOIENA	IZURTZU
	LIZARRAGA	LERATE
	DORRAO	MUETZ
	UNANU	GESALATZ-MUNIAIN
92	ERRO	BIDAURRE
	AINZIOA	121 GIRGILLANO
	ZILBETI	GIRGILLANO-ETXARREN
	ERRO	GIRGILLANO
	ESNOTZ	124 IBARGOITI
	AURIZBERRI	ABINTZAO
	LINTZOAIN	IDOTZIN
	MEZKIRITZ	IZKO
	ORONDRITZ	IBARGOITI-GETZE
	BIZKARRETA-GERENDIAIN	128 IZABA
93	EZKAROZE	132 IZAGAONDOA
94	ESLABA	ITZAGAONDOA-ARDANATZ
95	ESPARTZA	133 ITZALTZU
99	ETAIO	134 EIAURRIETA
102	EZKURRA	135 XABIER
103	EZPROGI	137 LABAIEN
	AIESA	139 LANA
110	GALIPENTZU	GALBARRA
111	GALOZE	GASTIAIN
	IZIZE	NARKUE
	ITZALLE	ULIBARRI
	USKARTZE	BILORIA
112	GARAIOA	141 LAPOBLACION
113	GARDE	LAPOBLACION
115	GARRALDA	MEANO
116	UXANABILLA	143 LARRAONA
118	GOÑI	146 LEATXE
	AIZPUN	147 LEGARDA
	AZANTZA	150 LEOTZ
	GOÑI	ARTARIAIN
	MUNARRITZ	IRATXETA
	URDANOTZ	LEOTZ
119	GORZA	OLLETA
	GORZA	151 LERGA
	IGARI	154 LEZAUN
120	GESALATZ	156 LIZOAIN
	ARGIÑANO	158 LONGUIDA
	ESTENOTZ	AOS
	GARISOAIN	ARTAXO
	GEMBE	EKAI

LONGIDA-MURILLO	IBILZIETA
BILLABETA	SARTZE
162 MARAÑON	225 SORLADA
170 MIRAFUENTES	230 TORRALBA DEL RIO
175 MUES	OTIÑANO
181 NABASKOZE	TORRALBA DEL RIO
AIZPURGI	235 UXUE
NABASKOZE	237 UNTZITI
USTAIZE	ALTZORRITZ
182 NAZAR	ARTAITZ
185 OTSAGI	ZENBORAIN
187 OITZ	NAXURIETA
190 OLEXOA	UNTZITI
192 OLORITZ	ZABALTZETA
ETXAGUE	238 UNTZUE
MENDIBIL	241 URRALGOITI
OLORITZ	AIETXU
SOLTXAGA	IMIRIZALDU
195 ORBAITZETA	IRUROZKI
196 ORBARA	ONGOTZ
197 ORISOAIN	243 URROTZ
198 ORONTZE	244 URROTZ
199 OROZ-BETELU	245 URZAINKI
203 PETILLA DE ARAGON	247 UZTARROZE
204 PIEDRAMILLERA	248 LUZAIDE
209 ROMANZADO	252 BIDANKOZE
ARBONIES	255 VILLAMAYOR DE MONJARDIN
BIGUEZAL	256 AEZKOA-HIRIBERRI
DOMEÑO	261 ESA
MURILLO-BERROIA	262 ZABALTZA
210 ERRONKARI	ARRAITZA
211 ORREAGA	UBANI
213 SALDIAS	ZABALTZA
214 JAITZ	263 ZUBIETA
217 SAN MARTIN UNX	264 ZUGARRAMURDI
222 SARTZE	

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

**Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion
Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostiko-
arekin**

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostikoarekin. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Foru Araubide Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztaibadari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Foru Araubideko Batzordean eztaibadatu izan dadin.

Nafarroako Gortek Nafarroako Gobernua premiatzen dute gure komunitateko egoera politikoari buruzko diagnostikoa eginez Biltzar honetara Komunikazio bat bidal dezan.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

F Saila:
GALDERAK

Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Dirudienez, Zubirin dagoen Magnesitas enpresak du elementu kutsatzaileen etengabeko isurketaren ardura.

Badakigu aipatu enpresa funtsezkoa dela ibar horretan eta familia asko daudela haren menpe.

Nafarroako Gobernuak % 93aren jabe da, eta, beraz, magnesio oxido isurketen arduraduna. Magnesio oxido hori, gainera, produktu bukatua da.

Horrek guztiak zarrastelkeria (bukatze fasean dagoen magnesio oxidoa alferrik galtzen baita) eta kontrolik eza dagoela pentsarazten digu.

Galdera honen xedea da Foru Gobernuak isurketa horien aurrean duen jarrera ezagutzea eta zarrastelkeria horrek eta isurketa kutsagarriek kezkatzen gaituztela adieraztea.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

- Gobernuak, batzorde teknikoren baten bitartez, aztertu al dituen arazoa konpontzeko erabili diren inbertsioak, ingurugiro arlokoak eta ekonomikoak, izan ere, arazoa sortarazi duten isurketetan bukatze-fasean dagoen produktua agertzen baita, horrek dakarren eralketa ekonomikoarekin.

Baiezkoan:

– Zer azterketa egin diren. Azalpen zehatz-mehatza.

– Nortzuk dauden aipatu batzorde teknikoan (halakorik balitz, izen horrekin edo besteren batekin), eta zergatik.

Ezezkoan:

– Enpresaren eta Foru Exekutiboaren arteko harremanaren azalpena.

Edonola ere: zer egiteko asmoa dagoen isurketon aurrean eta zer egin den gaur egunera arte.

Iruñean, 1997ko abenduaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Isabel Arboniés Bermejo, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza eta Kultura bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun dakion:

Azken egun hauetan hezkuntza pribatuaren eta ikastetxe pribatu itunduen patronalak familiei eskatu diete, ikasleen bitartez, Nafarroako Gobernuak erabiltzen ari den hezkuntza politikaren aurka sina dezaten, protestaldi bati babesa emateko eta hezkuntza pribatuak planteaturiko erreibindikazioen alde.

Ikasleak erabiltzea aurrekontuei buruzko erreibindikazioak direla-eta protestaldiak eta sinaduren bilketak egiteko, bidegabekeria iruditzen zaigu,

izan ere desadostasunaren mamiak ez duelako zerikusirik batere hezkuntzaren edo heziketaren helburuekin.

Hezkuntza administrazioak ikasleei hezkuntza edo heziketa helburuekin batere zerikusirik ez duten jarduerak egiteko eskubideak murriztu balizkie, erabat arrazoizkoa iruditzen zaigu neurri hori bera beste hezkuntza maila batzuetan ere aplikatzea.

Euskal Autonomia Elkartearen antzeko egoera bat gertatu da berriki, hau da, ikasleak erabiltzea gurasoei oharrak bidaltzeko hezkuntza jarduerarekin zerikusirik ez duten adierazpenekin, eta Hezkuntza Sailak horren erantzuleak zigortu ditu.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak ikasleak postari gisa erabiltzeari buruz eta ikasleen familiak ikastetxe pribatu itunduen hezkuntza eta heziketa helburuarekin zerikusirik ez duten protestaldi eta erreibindikazioen abanguardian jartzeari buruz?

2. Zein neurri hartu behar ditu Foru Gobernuak hezkuntza helburuarekin zerikusirik ez duten interes eta presioetarako, alegia, behar diren bideetatik legitimatu beharreko helburuak betetzeko, ikasleak eta familiak aurrerantzean erabil ez daitezen?

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Angulo

Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean:

Belabarze Ibarreko Ezkaurre mendiaren iparraldeko hegian dagoen izeidi-pagadian, Hartza Leheneratzeko Planari loturiko zona bat izanik, hainbat zuhaitz ebakitzen ari dira, baita baso-bideak eraikitzen ere.

Hori dela-eta, honakoa jakin nahi da:

- Ezkaurre mendiko izeidi-pagadian ebaketa eta bide horiek egiteko baso-antolamendurako proiekturik ba al dago?

- Nafarroako Gobernuaren aburuz, zer nolako ondorio dute edo izan dezakete jarduketa hauek hartzaren kontserbazioari dagokionez?

- Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamentuak Ezkaurre mendian zuhaitz-ebaketa eta baso-bide horiek egiteko baimenik eman al du? Baiezkoan, zertan oinarritu du baimen hori?

Iruñean, 1997ko abenduaren 18an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

“Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas jaunak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Herrilurren defentsa (LFAren 9. artikulua) izeneko aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren inguruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Ez da inongo arauzko xedapenik eman aurrekontu kontusaila aldatu duenik.

2. Aurrekontuei buruzko Legearen aurreproiektuan, kontusailak 27 milioi pezeta zituen. Aurrekontuen Legea Parlamentuan izapidatu zenean, kontusail horren diru-zenbatekoa handitu zen 67 milioiko zenbatekoa izan arte.

3. Kontusail horretan ez dago aurreko ekitaldian hitzartutako ordainketarik.

4. 1997an egindako jarduketak ondokoak dira:

8.362 m² erostea Berbintzanan herrilur izateko...101.485 pta.

41.787 m² erostea Iturenen herrilur izateko...529.999 pta.

Herrilurrak direla-eta aurkeztutako erreklamazioak... 1.452.789 pta.

7.202 m² erostea Rocaforten herrilur izateko... 27.540 pta.

Arantzako 538 Ha eskrituratu eta inskribatzeko gastuak... 35.053 pta.

226.834 Ha erostea Valtierran herrilur izateko...9.481.259 pta.

332.099 m² erostea Arasen herrilur izateko...794.501 pta.

Lurrak erostekotan gaude lau herritan, 3.500.000 pezetatan eta Azkoiengo Corraliza el Cascajo izeneko berrerosi behar da. Azken horretarako behar den dirua 50 milioi ingurukoa da. Pitillasen ere lurak erosi nahi dira herrilur izateko 17.800.000 pezetatan.

5. Ez dago hitzartutako gasturik hurrengo ekitaldietarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 22an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

Interes artistikoa duten eraikinak bereoneratzeko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak interes artistikoa duten eraikinak bereoneratzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Interes artistikoa duten eraikinak bereonertzeko obrei buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1997an egiten ari diren obrak hauexek dira:

– Aiegi

Iratxeko Monastegia, mantenimendua

1997ko maiatza-abendua

– Abartzuza

Irantzuko Monastegia, mantenimendua

1997ko maiatza-abendua

– Erriberri

Errege-jauregia, mantenimendua

1997ko maiatza-abendua

San Pedro Eliza, teilatu-estalkia zaharberritzea

1996ko abendua-1997ko urria

– Esa

Leireko Monastegia, mantenimendua

1997ko maiatza-abendua

– Iruña

Nafarroako Museoa, kapera egokitzea arte sakratuko areto gisa.

1996ko abendua-1997ko ekaina

Katedrala, eliz atariko teilatu-estalkia konponetzea

1997ko martxoa

– Marcilla

Gaztelua, konponketak

1997ko martxoa

– Fitero

Fiteroko Monastegia, girola eta sakristiako teilatuak zaharberritzea

1996ko abuztua-1997ko abendua

– Corella

Arte Sakratuaren Museoa, teilatu-estalkiak zaharberritzea

1996ko azaroa-1997ko ekaina

– Barasoain

Catalaineko basiliza, erantsitako eraikinak garbitzea

1997ko urria-azaroa

– Uharte-Arakil

Aralarko San Migel, teilatu-estalkiak zaharberritzea

1997ko uztaia-abendua

– Zirauki

Anizko basiliza, zaharberritzea

1996ko azaroa-1997ko apirila

– Tuteria

Katedrala, teilatu-estalki nagusia konpontzea

1997ko apirila

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Aralarko larreak hobetzeko proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Aralarko larreak hobetzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak, Aralarren bazkalekuak hobetzeko proiektu bati buruz Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen dute:

1.- Gobernuak berak landutako bazkaleku-hobekuntzarako proiektua Aralarren burutzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak prestatutako proiektua, Aralarren bazkalekuak hobetzeko, burutzeko asmoa Nafarroako Gobernuak badu.

2.- Aralarko bazkalekuak hobetzeko jarduketaren egutegi zehatza zein da?

Aipatu proiektuan aurreikusiriko jarduketak 1998an burutuko dira.

3.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Aralarko mendiaren titularitatea Foru Komunitatearena dela? Ala, aitzitik, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa dela pentsatzen al du, proiektuan idatzi den bezala?

Nafarroako Gobernuak badaki Aralar mendiaren titularitatea Nafarroako Foru Komunitatearena dela; bazkalekuak hobetzeko proiektuaren proposamenen —onetsi gabeko proiektua izanik, hobetu daitekeena— akats terminologiko baten ondorioz Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa espresioa sartu zen. Hain du argi Gobernuak Aralarren titularitatea Foru Komunitatearena dela, non espreski horrela jaso geratu baita Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Aralar Batasunarekin 1997ko irailaren 30ean sinaturiko Hitzarmenean.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizute hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Kutsaturiko lurzoruen inbentarioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak kutsaturiko lurzoruen inbentarioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Kutsaturiko lurzoruei buruzko araudiaz eta hori lurzoru-jabeei jakinarazteaz Miguel Ángel Larráyo Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurreikusten al du

egun kutsatuak dauden lursailak zeintzuk diren guztiek jakin dezaten eta aipaturiko zerrenda edo inbentarioan sar ditzaten araudiren bat egin eta guztiei jakinaraztea?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du aurreikusten kutsaturiko lurzoruei buruzko inolako araudirik egitea, Hondakinei buruzko Legearen Proiektuaren izapidaketa oso aurreratua baitago Gorte Nagusietan. Hain zuzen ere, kutsaturiko lurzoruek Lege horretako V. Tituluan arautzen dira, eta 27. artikuluan horien deklarazioa, une honetan dagoen legezko hutsunea betez. Edozein kasutan, Estatu-ko legediak oinarritzko izaera du gai honetan, eta, horregatik, egokia dirudi Estatu-ko Legea onetsi arte itxarroteak, eta, hala behar bada, babes-arau gehigarriekin hura garatzeak, beharrezkotzat jotzen bada Nafarroako lurralde-esparruan.

Egun kutsaturiko lursailak guztiek ezagutzeari dagokionez, gaur egun idazketa- eta prestakuntza-fasean dagoen inbentarioaz gain, ez da ahaztu behar Jabetza Erregistroa izaera publikoko erregistro bat dela. Legea onetsi ondoren, lurzoru bat kutsatua deklaratu izan dela albo-ohar baten bidez adierazi ahal izango da Jabetza Erregistroan, egoki diren erantzukizun-ondorioetarako; beraz, hiritar orok edukiko du informazio horren jakitun izateko bidea.

2.- Kutsaturiko lurzoruen jabeen horrelako egoera batetik erator daitezkeen ondorioen berri ematea aurreikusten al du Ingurugiro Departamentuak?

Kutsaturiko lurzoruen inbentario bat egiteak honako arazo honekin ere topo egiten du: alegia, ezaugarriak finkatzeari buruzko arau teknikorik ez egotea. Hori dela-eta, abian dauden lanak alderaturiko araudietan oinarrituz ari dira burutzen.

Bestalde, inbentarioa egiteak potentzialki kutsaturiko lekuak maila ezberdinetan kokatzen

ditu, 0tik 8ra, horien ezagutzan sakontzen joan ahala:

0. Maila: Potentzialki kutsaturiko lekua.
1. Maila: lekuaren ikusizko azterketa.
2. Maila: Lekuaren ezaugarriak.
3. Maila: Lekuari buruzko ikerketa sakona.
4. Maila: Lekuan dagoen kutsadurak dakartzan ingurugiro-arriskuen azterketa.
5. Maila: Leheneratze-proiektua idaztea.
6. Maila: Leheneratze-jarduketak burutzea.
7. Maila: Leheneraturiko lurzoruak.
8. Maila: Leheneraturiko lurzoruen jarraipena eta kontrola.

Orain arte, ikerketa 0 eta 1 mailetaraino egin da, eta 2. mailari buruzkoa esleitzear dago; hain zuzen, maila horretantxe hasten da alde batera uzten kutsadura-presuntzioa, kutsadura horretatik eratorritako ingurugiro-arriskuak aztertze modua prestatzen hasiz, eta, beraz, jarduketa-lehentasanak eta premiak.

Horretaz aparte, jadanik lau leku aztertutik daude, eta 4. mailan kokatuta; 5. mailan, beste lau daude.

Zortzi leku horietarako orain arte egin diren azterlan guztien berri eman zaie lursailen jabeen eta kasuan kasuko udalei, egoki diren ondorioetarako.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Aralarko Mendikateko larreak hobetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Aralarko Mendikateko larreak hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Aralarko Mendikateko bazkalekuen egoerari buruz Begoña Errazti Esnal, Eusko Alkartasuna Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak idatziz erantzun dakizkion eginiko galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen dute Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak:

1.- Ba al dago landutako proiekturik? Zenbateko osoa, jarduketaren helburuak, nork landu duen eta ea Ingurugiroko baimenik baduen (onarpen-data eta espediente-zenbakia).

Badago proiektu bat, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak landutakoa, honako lan hauek aurreikusten dituena:

– Sastraka kentzea, kareztatzea, ongarritzea eta birrereitea: 77,6 hektarea.

– Bideetako lokatz-guneak estaltzea: 1000 metro lineal.

– 0,50 m-ko iturri-tutua. Diametroa bidean: unitate bat.

– Aska: unitate bat.

– Ur-hodiak: 250 metro lineal.

– Azienda gidatzeko itxitura: unitate bat.

– Aurrekontua: 8.668.912 pezeta.

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan data honetan sartua: 1996ko urria.

– Espediente-zenbakia: 009-0006342 eta 009-0006341.

Halaber, badago Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat, proiektu horren aldekoa dena, bai basoaren ikuspuntutik, bai ingurugiroarenetik ere. Horrela, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskatutakoa bete egingen da. Txosten horren data 1997ko irailaren 2a da.

2.- Ba al dago bazkalekuen hobekuntza ahalbidetzen duen kontusailik? Kopurua eta zenbatekoa.

Nafarroako Gobernuak 1998an ekingo dio proiektu hori burutzeari.

3.- Ba al du Ingurugiro Departamentuak bazkalekuak hobetzeko asmorik? Jarduketa-datak.

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak ez du Aralarko bazkalekuak hobetzeko inolako eskaerarik jaso. Nafarroako Gobernuak 1998an ekingo dio proiektu horri, eta oraindik erabakitzeke dago hori burutuko duen unitate zehatza.

4.- Eten al du Ingurugiro Departamentuak zura-erazketa? Baiezkoan, horren arrazoiak.

Aralar Mendiaren baso-aprobetxamendua, 1996 eta 1997 urteei dagokiena, 1997ko irailaren 30eko data duen Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren Ebazpen baten bidez onetsi da, Gobernuak eta Aralarko Batasunak lursail horiek aprobetxatzeko lankidetzak-akordioa sinatu ondoren.

5.- Baimenduriko azken zura-erazketen datak.

Arotziarako Aralar Mendian izandako azken zura-aprobetxamenduak 1986. urtean egin ziren. 1987 eta 1988an egur-aprobetxamenduak egin ziren, zortasunetarako.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizute hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Navarra de Medio Ambiente Industrial sozietate publikorako kudeatzailearen izendapenari buruz Miguel Ángel Larráyoiz Lezáun, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Zenbat bilera egin ditu aipatu sozietateko aginte-organismoak?

Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A. enpresa publikoko Administrazio Kontseiluak gaur arte hiru bilera egin ditu, honako data hauetan: 1997ko uztailaren 1ean, abuztuaren 14an eta urriaren 10ean.

2.- Zer kargu betetzen dituzte Nafarroako Gobernu funtzionarioek aginte-organismoan, eta zeintzuk dira funtzionario ez diren gainerako agintariak?

Nafarroako Gobernu funtzionarioak diren pertsonak Administrazio Kontseiluko kide dira. Nafarroako Gobernu funtzionario ez diren Sozietate honetako Administrazio Kontseiluko kideak honakoak dira: Lehendakaria (izenpetzen duen honek dauka kargu hori), Lehendakariordea (Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak dauka kargu hori) eta bi Kontseilukide (José Torres Ruiz jauna, Lurraldearen Antolamendurako eta Etxebizitzarako Zuzendari Nagusia eta José María Baselga Elorz jauna).

3.- Zeintzuk dira aipatu sozietateko zuzendariak hartu dituen erabakirik interesgarrienak?

Administrazio Kontseiluaren erabakiak bilkura bakoitzeko gai-zerrenda zehatzari dagozkionak dira. Honako hauek, hain zuzen:

– 1997ko uztailaren 1ean eginiko bilkura

Gai-zerrenda

1.- Kontseilariak karguak onartzea.

2.- Lehendakariordea izendatzea.

3.- Idazkaria izendatzea.

4.- Eskari eta galderak

– 1997ko abuztuaren 14an eginiko bilkura:

Gai-zerrenda:

1.- Zuzendari Kudeatzailea izendatzea eta, bere kasuan, ahalmenak delegatzea.

2.- Eskari eta galderak.

– 1997ko urriaren 10ean eginiko bilkura:

Gai-zerrenda:

1.- Kudeatzaile berria aurkeztea eta beronen Txostena.

2.- 1998ko Aurrekontuak.

3.- Parlamentuko galderak eta erantzunak.

4.- Eskari eta galderak.

4.- Zer izapidetan dago Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren proiektua?

5.- Zer jarduketa burutu ditu Kontseilari andreak Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren proiektua dela-eta?

Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren proiektua Nafarroako Parlamentuan dago; bertako Mahaiak erabaki du urriaren 30ean Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen bilkura egin dadila, eta bertan honakoa izenpetzen duenak parlamentariak proiektu horren edukiaren berri emango die.

6.- Zer jarduketa burutuko dituzte Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren proiektua dela-eta?

Planak behin betiko izaeraz finkatzen dituenak, Nafarroako Parlamentuak onetsia izan ondoren.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Proiektaturiko urtegiak burutzearen gainean Ingurugiro Ministroak adierazitakoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, proiektaturiko urtegiak burutzearen gainean Ingurugiro Ministroak adierazitakoei buruz Miguel Angel Larráyozen Lezáun Foru Parlamentari jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro Ministroak eginiko adierazpenek, hainbat urtegi burutuko ez dela iragarritz, gure Foru Komunitatea ukitzen ote duten jakiteko asmoz Miguel Angel Larráyozen Lezáun, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Eginiko azalpenek Foru Komunitatean kokatutako obra hidrauliko edo urtegiak ukitzen ote duten ba al daki Ingurugiro Departamentuak modu zehatz eta irmoan?

2.- Azalpen horiek ukitzen al dute, zehazki, Esako urtegia zabaltzeko proiektua?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du Foru Komunitatean urtegiak eraikitzearen aurreikuspenetan aldatu eragingo dituen Ingurugiro Ministerioaren inolako erabakiren berri.

3.- Zein egoeratan aurkitzen da zabaltze-proiektu hori?

Estatuko Administrazio Zentralaren eskumenekoa den espediente bat izanik, Departamentu honek badaki Esako Urtegiaren zabalpen-proiektu aldatua, Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlanarekin batera, 1993ko maiatzaren 3koa den eta 55. zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela informazio publikorako.

Aurkezturiko alegazioak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ebatzi zituen, eta 1994ko martxoaren 18an Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioari igorri zion informazio publikoko aipatu espedientea eta eraikuntza proiektua onesteko proposamena.

Ministerioko Ingurugiro Politikarako Zuzendaritza Orokorrek Ingurugiro Eraginari buruzko azterlan hedatzea eskatu du, errepide-saihesbideen, harrobien eta zona ureztagarriaren zabalpenaren eragina ere kontuan hartzeko.

Esako Urtegia Aragoi ibaian zabaltzeak ukituriko errepide-saihesbideen proiektua izapidatzeaz dago onetsia izan dadin.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi digunez, Esako Urtegiaren eta errepide-saihesbideen ingurugiro-eragina neurtzeko azterlan berria aurten bertan kontratatuko da; izan ere, oinarrien orriak egina dauka jadanik kreditu-atxikipena. Aurreikuspenen arabera, azterlan hori datorren urtean egingo da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 24an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Gaur egun trenbide-zerbitzuetarako erabiltzen den lurzorua jaregiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak gaur egun trenbide-zerbitzuetarako erabiltzen den lurzorua jaregiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Trenbide-zerbitzuetarako erabilitako balizko lur-soberakinekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak intereseko irizten al dio RENFERekin kudeaketaren bat egiteari, hain zuzen ere trenbide-zerbitzurako emandako lurra murrizteko, zerbitzu horretarako behar dena eta ez gehiago utziz?

Garraio-jarduera, tren-zerbitzua barne, denboran zehar bilakatuz doan jarduera bat izateak posible egiten du une jakin batzuetan lur-soberakinak egotea. Horrelakorik gertatzen den bakoitzean eta trenbide-zerbitzuarekin zerikusia duten jarduera berrietarako erabiltzeko planik ez bada, arrazoizkoa da horrekin bateragarriak diren beste jarduera batzuetara bideratzea.

2.- Egokia iruditzen al zaio, edozein kasutan ere, trenbide-instalazioek ukitutako udalen iritzia eskatzea jakiteko gaur egun trenbideak eta haren eranskinek okupatzen duten lurzorua murriztu ote daitekeen udal jabegora pasatu ahal izateko?

Lehenengo eta behin, beharizanaz aztertzea RENFERi dagokiola deritzogu, udalerrri bakoitzean ematen dituen zerbitzuen eta etorkizun hurbilari begira izan ditzakeen planen arabera. Soberakin horiek definitu ondoren, hala bada, badaude legezko mekanismoak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta abar, erabilera berri posibleak definitzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 13ko 66. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Tuteran dagoen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruz Martín Landa Marco Foru Parlamentari jau-

nak eginiko galderari ihardetsiz, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetan matrikula egiteko prozesua ez da itxita egon. Iraileko lehenengo hamabostaldian matrikula egiteko ohiz kanpoko epe bat ireki zen, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiaren ekainaren 19ko 577/1997 Ebazpenari jarraikiz. Ebazpen horrek 1997/98 ikasterterako zentro horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten Jarraibideak onetsi ditu. Horrekin, urrian zehar beti gertatzen diren bajak ordeztu egiten dira.

Etorkizunari begira, ildo beretik, 160 eskola-orduko guztizko kopurutik 49ra ez joatea eskola-

tzea galdu gabe posible izatearen irizpidea berrikusi egin beharko da, baita kurtso-errepikapenari dagokionean ere, ikasle berberak plaza bat arrazoizko urte-kopuru batez besterik bete ez dezan, alferrik ez blokeatzeko.

2.- Hizkuntza Eskola Ofiziala ez da hizkuntzak ikasteko bide bakarra. Urruneko H.E.O. gaur egungoaren zama arintzeko sortu zen, hain zuzen. Eta ez da ahaztu behar Unibertsitateak ere eskaintzen duela hizkuntzak ikasteko aukera, eta enpresek eta sindikatuak ere ikastaroak antolatzen dituztela FORCEMen bidez.

Dena den, gakoa honako honetan datza: derri-gorrezko hezkuntzan, hala Lehenengoan nola Bigarreanean, ikasle guztiek zortzi urtez gutxienez atzerriko hizkuntza bat ikasten dute, nagusiki Hizkuntza Eskola Ofizialetan eskaerarik haundiena dutenak izanik, hain zuzen ere.

Paradoxazko egoera honek arazoa bere benetako izaerarekin mahaigaineratzen du: ikastetxe arruntetan hizkuntzak irakastea sustatu eta bultzatzeko beharra, Europako gainerako lekuetan egiten den bezala: han, ez dago Hizkuntza Eskola Ofizialik.

Ildo honetan, azaldu dugu jadanik asmoa dugula ikerketa-jardunaldi batzuk antolatzeko, helburutzat Nafarroan hizkuntza-irakaspenera berrikusi eta dauden tresna ezberdinak koordinatzea dutenak, eskura dauden baliabideen errendimendua hobetu ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 30ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Hezkuntza eta Kultura Batzordearen bi ordezkariak, Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian, izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1997ko abenduaren 18an eginitako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen.

1. Behean aipatzen direnak izendatzea Hezkuntza eta Kultura Batzordearen ordezkari Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian:

– Pedro Eza Goyeneche jauna.

– Carlos Cristóbal García jauna.

2. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

BEHIN-BEHINEKO IZENDAPENA

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari postu bat betetzeko oposizio-lehiaketa, bertako lehendakariak 1997ko martxoaren 17an emandako ebazpenaren bidez deitua, amaitu ondoren, eta M^a Asunción Olaechea Estanga izangaiaren aldeko izendapen-proposamena 83 zenbakia duen Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 1997ko abenduaren 9koan, argitaratu ondoren, egoki da, 10.1 oinarriak aipatzen dituen agiriak aurkeztu direlarik, proposaturiko izangaiaren behin-behineko izendapena egitea, deialdiaren 11. oinarrian aurreikusitako praktikaldia has dezan; hori dela-eta, Lehendakaritza honek honako ebazpen hau ematen du:

EBAZPENA:

1.- M^a Asunción Olaechea Estanga andrea Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionario izen-

datzea, behin-behineko izaerarekin eta kontu-ikuskaritzako Teknikariaren kategoriarekin.

2.- Behin-betiko funtzionario-izendapena lortu ahal izateko interesatuak sei hilabeteko iraupena duen praktikaldi bat gaudituz beharko duela ezartzea. Praktikaldi horrek hasi beharko du behin-behineko izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun naturaleko epearen barruan.

3.- Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea, eta hori interesatuari eta Nafarroako Kontuen Ganbarako Idazkari Nagusiarri jakinaraztea, egoki diren ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde